

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

**SORORITATEA, PROSTITUZIO KONTEXTUETATIK DATOZEN
EMAKUMEEKIN ESKU-HARTZEKO TRESNA GISA.**

Gizarte esparruko profesionalei egindako ikerketa

Egilea: Maialen Garbayo Ciriza

Zuzendaria: Maria Olga Cardeñoso Ramirez

Leioan, 2023ko maiatzaren 26(a)n

SORORITATEA, PROSTITUZIO KONTEXTUETATIK DATOZEN

EMAKUMEEKIN ESKU-HARTZEKO TRESNA GISA

Gizarte esparruko profesionaleri egindako ikerketa

Maialen Garbayo Ciriza

UPV/EHU

Azterlan honetan, sororitatea prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko tresna gisa aztertu nahi da, gaiaren konplexutasunak eskatzen duen genero-ikuspegi berritzailetik. Horretarako, lehenik eta behin, azterketa teorikoen bidez landuko dira ikerketa honen zutabeak, hau da, genero-ikuspegia zaugarritasunean, sororitatea, prostituzioa eta kolektibo horrekiko esku-hartzea. Bigarrenik, hainbat profesionalen erantzundako inkesta baten bidez lortutako datuak aztertuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-eremuan prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeekin egiten den lana ezagutzeko. Amaitzeko, ondorioak eta etorkizunerako proposamenak egingo dira, sororitatea ardatz nagusitzat hartuta.

Esku-hartze soziala, sororitatea, Prostituzioa, Laguntza-sareak, Generoa

En este estudio se pretende analizar la sororidad para intervenir con mujeres procedentes de entornos de prostitución y como una herramienta planteada desde la perspectiva de género innovadora que requiere la complejidad del tema. Para ello, en primer lugar, se trabajarán los pilares de esta investigación a través de estudios teóricos, es decir, la perspectiva de género en la vulnerabilidad, la sororidad, la prostitución y la intervención con este colectivo. En segundo lugar, se analizarán los datos obtenidos a través de una encuesta respondida por diferentes profesionales para conocer el trabajo que se realiza en el ámbito social de la Comunidad Autónoma Vasca con mujeres procedentes de entornos de prostitución. Para finalizar, se realizarán conclusiones y propuestas de futuro con la sororidad como eje central.

Intervención social, sororidad, Prostitución, Redes de apoyo, Género

The aim of this study is to analyse sorority in order to intervene with women from prostitution environments and as an innovative tool from the gender perspective that the complexity of the subject requires. To do this, firstly, the pillars of this research will be worked on through theoretical studies, i.e. the gender perspective in vulnerability, sorority, prostitution and intervention with this group. Secondly, the data obtained through a survey answered by different professionals will be analysed in order to find out about the work carried out in the social sphere of the Basque Autonomous Community with women from prostitution environments. Finally, conclusions and proposals for the future will be drawn with sorority as a central theme.

Social intervention, sorority, Prostitution, Support networks, Gender.

AURKIBIDEA

Sarrera.....	1
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	2
1.1. Genero ikuspegia zaugarritasunean.....	2
1.2. Sororitatea.....	4
1.2.1. Sororitatearen printzipioak.....	4
1.3. Prostituzioa.....	5
1.3.1. Prostituzioaren nondik norakoak.....	5
1.3.2. Prostituzioaren egoera Espainia eta Euskadiko erakunde sozialetan.....	7
1.4. Prostituzio egoeran dauden emakumeekin esku-hartzea.....	8
1.4.1. Sororitatea prostituzio kontextuetan esku-hartzeko tresna gisa.....	9
2. Metodologia.....	10
3. Lanaren garapena.....	11
3.1. Ikerketaren Helburuak.....	11
3.2. Azterlana diseinatzea.....	11
3.3. Egoera hautatzea, taldeak eta ezaugarriak.....	12
3.4. Datuak biltzeko tresnak deskribatzea.....	12
3.6. Bildutako datuak aztertzea.....	14
3.6.1. Profesionalen aurkezpena.....	14
3.6.2. Errekurtsoaren aurkezpena.....	14
3.6.3. 2022an lagundutako emakumeen deskribapena.....	15
3.6.4. Esku-hartzerako mekanismoen ikerketa eta ebaluazioa.....	16
3.6.5. Feminismoa, ahalduntzea, autoestimua eta laguntza-sareak.....	17
3.6.6. Sororitatea esku-hartzeko estrategia gisa.....	17
3.6.7. Etorkizuneko esku-hartzeetarako iradokizunak, soritatearen ikuspegitik.....	19
3.7. Eztabaida: Bildutako datuak interpretatzea.....	20
4. Ondorioak.....	22
5. Etika profesionala eta datuen babesa.....	24
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

Sarrera

Lan honen aztergai nagusia prostituzio testuinguruetan ematen den laguntza-sareen lanketa da, bidea emanaz ikerketa-hipotesiari: sororitatea prostituzio testuinguruetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko tresna izan daiteke. Beraz, azterlan honetan ikerketa-hipotesia osatzen duten alderdi nagusiak ezagutu eta tresnaren aplikagarritasunean sakondu nahi da.

Esan daiteke azterlanaren abiapuntua Askabide Elkartean praktketan izandako esperientzia dela. Elkarte horretan antzematen zen profesional-taldearen kezka, emakumeen isolamenduak eta sare-sozial faltak esku-hartzeko orduan suposatzen zuten oztopoei dagokienez. Horrela, emakume horien harreman-dinamiketan sakontzeko interesa sortu zen, bereziki azpimarratuz ongizate emozionalean izan ahal duten funtzionaltasuna. Harremanen inguruan sakontzeak sororitatearen kontzeptua ikertzea ekarri zuen ezinbestean, konnotazio politiko, komunitario eta kulturalak dituen laguntza-sarea delako azken batean.

Genero-ikuspegitik egindako lanketa hau, funtsezkoa da prostituzio testuinguruetako emakumeekin egiten den esku-hartzeen eremuan, hein handian, lan egiten den erabiltzaileen profilagatik. Jasaten duten diskriminazio anitzari gehitu behar zaio arrisku psikosozialeko faktore bat, gizarte-isolamendua, alegia. Ondorioz, emakumeekin esku hartzeko planteatzen den estrategia, hein handi batean, emakumeen arteko harreman-sareak sustatzera bideratzen da, gizartean aktiboki parte hartzeko eta bizitza autonomorako bidean, laguntza izateko.

Asko dira sororitatea emakumeen ongizatea sustatzeko elementu gisa defendatzen duten ikerketak eta horregatik azterlan honen prozeduran lehenengo gaiari buruzko bibliografia aztertu da, euskarri teoriko bat emateko. Lan hori oso baliagarria izan da gerora bildutako informazioa aztertzeko eta ikerketarako tresna izan den formularioa sortzeko. Horrela, Euskadin prostituzio-testuinguruekin lan egiten duten gizarte-baliabideen arloko profesionalen talde bati jasotako testigantzak aztertu dira, metodologia mistoko formulario batetik jasotako erantzunen bidez.

Azkenik, lortutako emaitzen interpretazioak prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeen artean laguntza-sareak eta harremanak ezartzeko dauden zailtasunak agerian utzi dira, eta horrek justifikatzen du genero-ikuspegitik esku hartzeko tresna berriak planteatzeko beharra, sororitatea kasu, modu integral eta errealista batean lan egiteko.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Genero ikuspegia zaugarritasunean

Atal honetan, alde batetik, generoa gure gizarteko desparekotasunen ardatz egituratzaile gisa aztertu nahi da, kontzeptua argituz gizarte-zientzien esparruan, eta, bestetik, gizarte-errealitatean esku-hartzeko ikuspegi gisa planteatu nahi da. Izan ere, generoa, gure gizartearekin etengabe elkarrekintzan dabilen kontzeptu dinamikoa da, gizartearen ikerketa esparruan genero ikuspegiaren garrantzia azalduz. Baina argitzekoa da ere, gizartearen azterketan genero-ikuspegia txertatzea, ez dela soilik emakumeak ikustaraztea, baizik eta kontuan hartzea generoa funtsezko aldagaia dela zaugarritasuna zerri deritzogun zehazteko, gizonentzat eta emakumeentzat dituen ondorio bereizgarriak azpimarratuz (Berga, 2005).

Tradizioz, klase-sozialak funtsezko aldagaitzat hartu dira gizarte-egitura aztertzeko. Baina azkenaldian, gizarte-egituraketako beste ardatz batzuk kontuan hartzeko beharra planteatu da, klaseekin interseksionatzen direnak eta gizartearen ikuspegi sakonagoa ahalbidetzen dutenak. Honen adibide gisa, generoa daukagu. Garrantzitsua da aipatzea generoak suposatutako “desberdintasunak” ezaugarri gisa ulertu behar direla eta ez aukerak eskuratzeko ezberdintasunen legitimazio gisa. Hau da, izatez, gizonak eta emakumeak desberdinak gara, baina genero-desparekotasunak gizartearen eraikuntza dira (Berga, 2005).

Genero desparekotasunaren legitimazioa gure bizi-ziklo osoa markatuko du, genero-aginduen menpe. Gure generoari atxikitako rolen arabera jokatu dugu bizitza egokia izateko eta gauzatuta sentitzeko. Gizarte-bazterkerian dauden pertsonen kasuan, neurri handian, haien errealitate konplexura eramandako gertaerak bete gabeko genero-aginduekin lotuta daude. Honen adibide dira besteak beste gizon bezala familia mantentzeko baliabide ekonomiko falta edo emakume bezala ama izateko gaitasun emozional falta. Bazterkeria eta genero-aginduen arteko lotura ukalezina da eta beraz, garrantzitsua da genero-rolletatik kanpo dauden alternatibak planteatzea, genero ikuspegitik esku-hartzuz (Bañuelos, 2023).

Azpimarratzekoa da ere bazterkeria-egoeran dagoen pertsona bakoitza desberdina izan arren, emakumeek zaugarritasun handiagoan daudela soilik emakume izateagatik. Euskadin adibidez, kale gorrian dauden emakumeen kasuan %20k adierazi dute sexu-erasoak jasan dituztela eta %49k mehatxuak (Carrasco, 2019). Gainera, sistema mailan, emakumeen zaugarritasuna handiagoa da ere enplegu-tasa eta diru-sarrera txikiagoak dituztelako.

Hala ere, gizarte-zerbitzuetan gizonen ehunekoa handiagoa da, emakumeek gizarte-sisteman duten ikusezintasuna bultzatuz. Arreta-dispositiboak ikuspegi androzentristatik sortzen dira, eta ez diete erantzuten emakumeen premia espezifikoiei, hala nola segurtasunari. Emakumeak baliabide hauetara ez joateko arrazoen artean, egokitutako zerbitzuak ez izateaz gain, beldurra, estigma, ezjakintasuna eta genero-rolari lotutako arrazoiak daude (Emakunde, 2016). Emakumeek historikoki eremu pribatuan mugitu dira, eta agerikoak diren bazterkeria-moduak ekiditzen dituzte, prostituzioa bezalako alternatiba ezkutueta joz.

Agerikoa da ere gizarte-zientzietan emakumeek duten paperaren salaketa justifikatua. Izan ere, ikerlan edo proiektu askotan emakumeak babestu edo erreskatatu beharreko subjektu pasibo gisa agertzen dira eta, gizonen protagonismo eta menderatze-espazioak betetzen dituzte (Juliano, D. 2002). Hau oso agerikoa da prostituzioaren kasuan. Izan ere, genero ikuspegia landuta ez izateak paternalismoan, kolektiboen biktimizazioan, estigmaren sustatzean eta rol-femeninoen erreprodukzioa ekar dezake (García, 2022).

Esku-hartzeak genero-ikuspegitik lantzean, emakumeen autoestimua hobetzea, parte-hartzea sustatzea eta inklusiboak diren helburu errealek planteatzea bilatzea da. Lan merkatuaren arloan adibidez, zaintza edo garbiketa esparruetara bideratu ordez, teknologia edo beste esparruak kontuan izatea, lan-baldintza hobetoak eta ez-feminizatuak lortzea bideratzea da, eta horrek zaugarritasun egoeratik urrutzeko aukerak handitu egiten ditu.

Genero ikuspegia ezinbestekoa da ere profesional gisa dugun jarrera aztertzeko. Aurretik paternalismoaren kontzeptua aipatu da baina erabiltzaileekiko jarreraz gain, lankideen artean edo talde-hezitzailean betetzen ditugun roletaz ere konturatzea garrantzitsua da. Emakume bezala rol maitakorragoak betetzen ditugu eta horrek suertatzen du batzuetan esfortzu gehiago egin behar izatea autoritatea izateko adibidez. Gizonen aldiz, askotan lan "arriskutsuak" egiteko ardura hartzen dute haien papera izango balitz bezala. Gure buruan genero ikuspegia erabiltzea lehen pasoa da genero-rollak ez erreproduzitzeko.

Agerian geratu da beraz, genero ikuspegiaren erabiltzea, emakumei benetako protagonismoa emango dien planteamendu pedagogikoa sustatzea dela esku-hartze zein gizarte arloko ikerketetan. Planteamendu hauek errealtatetik kokatutako esku-hartzeak ahalbideratuko dituzte, genero desparekotasunetan oinarritutako jokabideak alde batera utziz. Planteamendu horren adibide gisa, sororitatea daukagu eta hori da izan ere, lan honetan landuko den gaia.

1.2. Sororitatea

1.2.1. Sororitatearen printzipioak

Sororitatea emakumeen esperientzia da, harreman positiboak bilatzera eta aliantza existentzial eta politikora eramaten duena, ekintza espezifikoek bidez zapalkuntza-modu guztiak desagerrarazteko, laguntzeko eta ahalduntzeko (Lagarde, 2013). Azken helburua, gizartearen adierazpen misoginoekin amaitzea da, emakumeen indarrak batzearen bitartez dimentsio etiko, politiko eta praktikotik. Izan ere, sororitatea genero-ikuspegitik jaiotako planteamendua da, historikoki sistemek bilatutako emakumeen isolamenduari aurre egiteko eta presentzia pribatutasunetik, komunitatera ateratzeko (Royo, et. al; 2017).

Sororitate hitza, latinezko Sor- de las sores (*hermanas*), hitzetik dator eta, ahizpatasuna esan nahi du. Mugimendu feministak sortutako kontzeptua izan zen emakumeen berdintasun grina adierazteko (Martínez, 2017). Baina ez da soilik emakumeen arteko harremana, errespetua edo duintasuna hobetzea, kontua da ere antolatzea, aliatzea, itunak egitea eta orokorrean politika egitea genero-premien aldeko interes komunak eraikitzeko. Sororitatearen politika guztia ere etika bat da, moral tradizional patriarkalaren kritikatik sortzen dena. Aldi berean, feminismotik eraikitako etika da ere, eta bere balioen artean berdintasuna, duintasunarekiko errespetua, eta askatasuna daude. Azken hamarkadan sartu den beste balio garrantzitsu bat emakumeen segurtasuna da, garapen politikoaren printzipio gisa (Pérez, 2019).

Sororitateak ere aniztasunean berdintasuna aldarrikatzen du kulturalki baztertzailak eta zapaltzailak diren sistemen aurrean. Munduko emakumeen aniztasuna agerikoa da, denok ditugu esperientzia bakarrak eta modu ezberdinean adierazten, eboluatzen edo pentsatzen dugu. Helburua ez da gauza guztietan ados egotea, ezta berdin pentsatzea ere; kontua da une jakin batean itunak egin ahal izatea helburu bat lortzeko, bestearekiko errespetutik eta konfiantzatik abiatuta emakumeon ongizatearen alde (Lagarde, 2013).

1.2.2. Sororitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa

Sororitate hitza lehen aldiz gaztelaniaz agertu zen Miguel de Unamuno idazlearen eskutik, *Caras y Caretas* aldizkarian argitaratutako artikulu batean. Bertan, sororitatea eta beraz, emakumeen harremanak erleen erlauntzarekin alderatzen ditu. Nola amek alabei, amonei, lagunei... ezagutza partekatu eta transmititzen dieten, elkarri laguntza emanez, "erleen erlauntza" emakumeen arteko konplizitatea balitz bezala (Unamuno, 1921).

Betidanik, patriarkatuaren nagusitasunak asko markatu izan ditu emakumeen arteko harremanak, eta batez ere familian, auzoan eta elizan ematen ziren. Gizarte garaikidean, emakumea eskolara joaten den heinean eta lan-bizitzan txertatzen den heinean, espazio publikoan harremanatzen hasten da, topaketa hori sororitatearen aurreko urrats gisa azalduz (Lagarde, 2013). Askok elkarrekin parte hartu zuten beren eskubideak lortzeko mugimendu sozialetan, baina sororitatearen kontzeptualizazio hori izan gabe.

60ko hamarkadako gizarte-mugimendu feministetan entzuten hasi zen gehienbat terminoa. Marcela Lagarde antropologo, aktibista eta feminismo garaikidearen aitzindariak azaltzen duen bezala, Estatu Batuetako bere lankide soziologoek feminismoaren aldeko dokumentuak sinatzen zituztenean topatu zuen terminoa, "in sisterhood". Sinadura hau zabaltzen joan zen emakumeen arteko aliantzaren grina hori adierazteko. Emakumeen arteko elkartasun politikoa defendatzen zuten, sistema patriarkalarekin amaitzeko (Varela, 2018).

Real Academia Españolaren hiztegian agertzen da lehen aldiz 2018an, honela definituz: *Emakumeen arteko adiskidetasuna edo maitasuna. Elkartasun-harremana, bereziki emakumeen ahalduntzearen aldeko borrokan* (RAE, 2018). Azken batean, historikoki bilakaera izan badu ere sororitatea emakumeek eremu guztietan parte hartzeko modua da, errealitatea eraldatzeko, emakumeen ongizaterako, eta genero-ikuspegitik egindako gizarte-politikak abian jartzeko estrategia politiko fundamentalak ere (Morales, 2016).

1.3. Prostituzioa

1.3.1. Prostituzioaren nondik norakoak

Prostituzioa, historian zehar modu desberdinetan aurkeztutako fenomenoak izan da, jatorri, esanahi eta ondorio moral desberdinekin aldaketa sozioekonomiko eta kulturekin batera (Suarez, 2015). Gaur egun, adostutako onura ekonomiko edo materialen truke burututako sexu-zerbitzu profesional gisa definitu daiteke (Pons, 2004). Praktika hainbat diziplinatan aztertu da, hala nola soziologian, kriminologian, psikologian eta ekonomian.

Gizarte-hezkuntza arretaren xede gisa, prostituzioa bazterkerkeriaren faktore askorekin batera ematen den fenomenoak izanik, zaila da kontzeptualki mugatzea (Pozo, 2021). Bereziki konplexua da, oso errotuta dagoelako inmigrazioa, pobrezia eta sexismoaren errealitateekin eta zaila delako proxenetismo eta pertsonen salerosketaren delituetatik bereiztea.

Baina lan honen ardatza aintzat hartuta, esan beharra dago Prostituzioa generoak oso markatutako praktika dela, emakumeak ordainketaren truke sexu-harremanak eskaintzen dutenen aldean daudelako, eta gizonak eskaeraren eta kontsumitzen dituztenen aldean. Gainera, modu anibalentean hautemandako fenomeno da, sexu maskulinoaren behar biologikoaren argudioaren bidez onartzen edo justifikatzen den bitartean, sexu femeninoaren kriminalizazioa ematen delako, emakumeen estigmatizazioaren bidez (Sarabia, 1998).

Ondorioz, bai arlo politikoan, bai sozialean, lan legitimotzat hartu behar den edo emakumeen gorputzaren merkantilizazio onartezintzat hartu behar den eztabaidatzen da. Eztabaidan ideologizazio handiko ikuspegiak biltzen dira, bi eredu nagusiren ingurukoak: Abolizionista (prostituzio oro sexu-esplotazioa da) eta Erregulazionista (sexu-lana erregulatzeak lan hori egitea erabakitzen dutenak babesten ditu). Hori bai, akordioa dago sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketari aurre egitean, eta onartzen da prostituzioa, negozio gisa, emakumeen ahultasun ekonomiko eta sozialean oinarritzen dela neurri handi batean (Orte et al., 2019).

Historikoki, prostituzioaren gizarte-gaitzespena oinarri erlijioso eta patriarkalari lotutako sexualitatearen instituzionalizazioaren isla izan da. Jatorrian (XIX. mendean), prostituzioa patologien markoaren barruan ulertzen zen. Prostituzioari buruzko lehen azterketak esparru analitiko higienistatik egin ziren, kontuan hartuta prostituten bizimodua kontrolatu behar zela, osasun publikorako arriskutsuak zirelako (Villa, 2010). Prostituzioaren fenomenoak, talde eta identitateak kategorizatze gako kultural gisa erabiltzen hasi zen (Morcillo, 2016).

Horrela, esan daiteke sexualitateari buruzko arau tradizional eta patriarkalak garrantzi handia izan zutela prostituzioaren esparru analitikoaren hasierako eraikuntzan, jokabide desbideratua eta delinkuentzia femeninoaren forma gisa (Villa, 2010). XX. mendeak aurrera egin ahala, soziologiak ikuspegi kritikoagoa hartu du generoen gizarte-eraikuntzaren eragina azaleratuz. Azken urteetan, gizarte desparekotasuna eragiten dituzten beste faktoreak aintzat hartu dira prostituzioaren fenomenoak ulertzeko hala nola zaugarritasun ekonomikoa edo inmigrazioa.

Ikuspegi juridikoan zentratuz, Espainiako legedia, Zigor Kodean jasota, ez du prostituzioa zigortzen baina bai askatasuna mugatutako edo indarkeria eta engainua erabilitako jarduerak. 2015ean onartutako Zigor Kodearen erreformak, proxenetismoa zigortzen du, biktima zaugarritasun egoeran aurkitzen bada. Zaugarritasuna zehazteko baldintzak zehaztugabeak dira eta beraz irekita geratzen dira auzitegien interpretaziora (Cáritas 2016).

Prostituzioaren jardueran aipatzekoa den lege bat, *Herritarren Segurtasunerako Legea* da debekatu egiten baitu kalean edo leku publikoetan prostituzio-jarduerak aurrera eramatea, isunen bidezko zigortzearekin. Aipatzekoa da ere *Atzerritartasun Legea* baliabide sozialetan lagundutako prostituzioan aritzen diren emakumeen %80a inguru atzerritarra baita (Munduko Medikua, 2021). Izan ere, lege honek traba asko jartzen ditu modu irregularrean dauden pertsonen enplegua lortzeko eta prostituzioa bezalako alternatibak bilatzera bultzatzen ditu.

Azken batean, esan daiteke Espainiako legediak teoriarik prostituzioa arautzeko erabilgarriak ikuspegia giza eskubideekiko errespetuan eta sexu-exploatazioa eta salerosketa prebenitzean oinarritzen den arren, demokrazia arrazista eta patriarkalaren testuinguru batean finkatzen dela eta horrek oztopatzen du prostituzioarekiko alternatibak lortzeko marko legala sortzea.

1.3.2. Prostituzioaren egoera Espainia eta Euskadiko erakunde sozialetan

Prostituzio-kontextuetako emakumeen profila eta kopurua ezagutzea zaila da, estigmaren beldurrez ezkutuzten den biztanleria baita. Horri prostituzio-kontextuek dituzten mugak gehitu behar zaizkio, hala nola mugimenduak eta proxeneten zigorrak, klandestinitatea eta ikusezintasuna eragiten dutenak (Koken, 2012). Horregatik arreta-baliabideen datuak aztertzea, prostituzioaren errealitatearen irudia lortzeko tresna izan daiteke.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da prostituzioa emakumeen errealitatea dela baliabide sozialetan lagundutako pertsonen %90a baino gehiago emakumeak baitira. Gizonen errealitate horren parte dira, baina, kuantitatiboki, minimoa izaten jarraitzen dute, prostituzioa kokatuz genero desparekotasunaren esparruan. Bestalde, esanguratsua da lagundutako emakumeen gehiengoa atzerritarrak direla, %80a inguru. Krisiaren ondorioz prostituzioan aritutako espainiarren kopurua handitu den arren, migratutako emakumeen zaugarritasuna eta prostituzioa bezalako bazterkeria-kontextuen arteko lotura ukazina da (Pozo, 2021).

Nazionalitateari dagokionez, kontuan izan behar da baliabideen kokalekuen eta migrazio-prozesuen arabera aldatzen dela. Nigeria eta Brasil jatorrizko herrialde ohikoenen artean daude, baina orokorrean Latinoamerikatik datoze emakume gehienak. Adinari dagokionez, orokorrean 35 urte baino gutxiago dituzten emakume gazteak dira, hezkuntza-maila baxuarekin. Lagundutako emakume askok seme-alabak dituzte ardurapean, Espainian edo jatorrizko herrialdeetan. Oro har, jatorrizko herrialdeetan pobrezia, bazterketa, diskriminazio eta indarkeria egoerak atzean uzten dituzten emakumeak dira (Cáritas 2016).

Euskadin erakundeetara hurbiltzen diren prostituzioan jarduten duten emakumeen profila ezagutzeko, interesgarria da aztertzea Deustuko Unibertsitateko eta Comillas Pontifiziako Unibertsitateek 2018.urtean osatutako ikerketa. Txosten horren arabera, 2000 emakume inguru aritzen ziren prostituzioan Euskadin. Horietatik, %34,9k internet bidez iragarri ondoren egiten zuten, kalea baino testuinguru seguruagoa eta merkeagoa zelako (Meneses, 2020). Aztertutako urtean, prostituzioan aritzen ziren emakume gehienak beste herrialde batzuetakoak ziren, oro har Latinoamerikakoak eta Ekialdeko Europakoak. Halaber, emakume espainiarren talde txiki bat eta Sahara hegoaldeko emakumeen talde bat ere nabarmendu ziren. Ikerketaren arabera, prostituzioan aritzen ziren emakumeen artean sexu-esplotazioko biktimen kopurua %10 ingurukoa izan zen (Ormaetxea, 2017).

1.4. Prostituzio egoeran dauden emakumeekin esku-hartzea

Prostituzioa esku-hartze sozialaren xede den jarduera da, hainbat mailatan, hala nola prebentzioan, babesean eta arretan (Serrano, eta Delgado, 2018). Prebentzioari dagokionez, sentsibilizazioa nabarmendu daiteke, gizarte orori, baita zaugarriak diren pertsonen zuzenduta ere, hala nola emakume migratzaileei. Kanpainak berdintasuna eta duintasunarekiko errespetua sustatzera, baita genero-indarkeria prebenitzera bideratuta egon daitezke. Babesaren esparruan, bermatu behar da osasun-zerbitzuen, gizarte-laguntzaren, aholkularitzaren, eta babes-neurrien eskuragarritasuna. Funtsezkoa da ere erabiltzaileen desestigmatizazioa, baliabideetara heltzea zailtzen duten oztopoekin amaitzeko. Arretan, gizarteratzeko eta laneratzeko programak egin daitezke, haien ahalduntzea eta autonomia sustatzeko, bai eta sexu-esplotazioaren biktimei babesa eta laguntza emateko neurriak ere.

Metodologiari erreparatuz, prostituzioaren kolektiboarekin proposatzen da interes berezia jartzea *sarbidearen eta errotzearen logikaren* teorian, ikuspegi horretatik planteatzen baita zaugarritasuna sarbide- eta errotze-mekanismoen hausturagatik sortzen dela. Logika horretatik askoz ere modu holistikoagoan esku hartzea planteatzen da, gaiaren konplexutasunetara egokituz. Prostituzioaren gaiari dagokionez, esan genezake sarbide-mekanismoak jarduera sozioekonomikoan edo lan-merkatuan parte hartzeari egiten diola erreferentzia, eta errotzea, kontzeptu politiko eta komunitarioak aipatzen dituela, lotura sozialen garrantziarekin zerikusia baitu, integrazioa eta ongizatea bermatzeko (Sepúlveda eta Rosales, 2011). Bigarren mekanismo honetan, sororitatea agertuko litzateke.

1.4.1. Sororitatea prostituzio kontextuetan esku-hartzeko tresna gisa

Gizarte-hezkuntzaren ikuspegitik, esku-hartzea ekintza antolatua da, arazo sozial bati erantzun nahi diona (Calderón, 2017). Zehazki lan honetan inplikazioa duen gizarte-arazoa, prostituzio kontextuetatik arreta bila dauden emakumeen ongizate eta gizarteratzea lortzea da. Izan ere, Prostituzioa, gaur egun, globalizazioaren testuinguruan aurkezten den fenomeno konplexua da, indibidualismoa eta bazterkeria sustatzen duten arau-sozialen menpe dagoena emakume hauen zaugarritasuna azaleratuz (Suárez, 2015).

Egoera horretan dauden emakumeek aurre egiteko estrategia ugari erabiltzen dituzte. Horietako bat, sororitatea da, jakin gabe praktikatzen dutena. Emakume askok euren arteko babes-estrategiez hitz egiten dute: elkartzen eta elkarri laguntzen saiatzen dira (Álvarez eta Montero, 2021). Horregatik, lan honetan sororitatea aurkezten da baliabide indartsua bezala prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeekin genero-ikuspegitik esku hartzeko.

Sororitateak prostituzioan lan-egindako emakumeentzako konfidantzazko espazio bat sortzen lagun dezake. Emakume hauek isolamendu eta bazterkeria jasaten dute askotan, eta zaila da ulertuak eta errespetatuak sentitzeko espazioak aurkitzea. Sororitateak espazio hori eman dezake, emakumeei beren esperientziak antzeko egoeretatik igarotako beste emakumeekin partekatzeko aukera emanez. Sororitateak ere prostituzioaren erabakiaren atzean dauden arrazoien kontzientzia handiagoa garatzen lagun dezake. Prostituzio kontextuetako emakume gehienek zaugarritasun-egoeran aurkitzen dira eta beste emakumeekin kontaktatzeak, haien egoera bultzatu duten faktore sozial, ekonomiko eta kulturalak hobeto ulertzeko balio dezake.

Gainera, sororitateak prostituzioaren alternatibak aurkitzen lagun diezaieke emakumeei. Informazioa, baliabideak eta trebetasunak partekatzean, emakumeek elkarri lagun diezaizkete prostituziotik ateratzeko aukerak garatzen, nahi izatekotan. Era berean, elkarrekin lan egin dezakete prostituzioaren azpian dauden arrazoiei heltzen dieten eta prostituzioa jasan duten emakumeei laguntza ematen dieten politiken eta programen alde egiteko.

Laburbilduz, sororitatea oso tresna baliotsua izan daiteke genero-ikuspegitik prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin esku hartzeko. Espazio seguru eta solidarioa sortzea, prostituzioaren atzean dauden arrazoien kontzientziak eta horri alternatibak aurkitzeko elkarrekin lan egitea, emakumeen gizarteratzerako eta ongizaterako bidean kokatzen gaitu.

2. Metodologia

Ikuspegi metodologikoa azterketaren izaerak, helburuak eta interesak baldintzatzen dute. Kasu honetan, azterlanaren helburua esku-hartzeko estrategien inguruko gogoetarekin lotuta dago. Aipatzekoa da azterlanaren asmoa ez dela lortutako emaitzen orokortasuna, baizik eta adierazgarritasuna eta berezitasuna, testuinguru jakin batean ezartzen diren dinamikak ulertzeko. Zehazki, lan honetan Euskadiko prostituzio-kontextuetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko mekanismoak aztertzea eta sororitatea tresna gisa erabilgarria litzatekeen ikertzea izango litzateke gakoa. Horregatik, metodologia mistoa erabiltzea erabaki da.

Ikerketa batean metodologia mistoa erabiltzea, metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak azterketa bakarrean sistematikoki txertatuz, fenomenoaren ikuspegi osoagoa izateko eta emaitzak alderatzeko aukera ematen du. Metodologia mistoa ezartzeko eta ikerketan eraginkortasun handiagoa lortzeko, lehenik eta behin metodo kuantitatiboen eta kualitatiboen ezaugarri egoki guztiak hartu behar dira kontuan. Ikerketa kuantitatiboak aukera ematen du beharra justifikatzeko, arazoak aurkitu, erlazionatu eta kuantifikatzeko. Bestalde, ikerketa kualitatiboak edukia emateko oinarriak ematen ditu, kausetan sakontzen du, funtzionamendua ezaugarritzen du eta konponbiderako aldaketa hipotetikoak aberasten ditu (Delgado, Gadea, Gadea eta Vera, 2018). Metodologia mistoek, azken batean triangulaziotik aberasten dute ikerketa, zabaltasun, sakontasun, aniztasun eta ulermen handiagoarekin.

Lan-ildo bati jarraitzeko, ikerketa plano teorikotik plano praktikora planteatu da. Horretarako, elkarrekin lotutako hiru zati bereizitan diseinatu da. Lehenik, esparru teorikoa garatzen da, genero-ikuspegiaren garrantzia azpimarratuz, prostituzioaren kontzeptua aztertuz eta sororitatea aztertuz, kolektibo horrekin esku-hartzeko tresna gisa. Marko teorikoa, gaiari buruzko irakurketa eta erreferentziaz gain, hainbat hitzaldi eta Askabide Elkartearen egindako praktiketako esperientziatik sortu da. Bigarrenik, prostituzioaren inguruko emakumeekin egindako esku-hartzeen eremuko profesionalei egindako ikerketa aurkezten da. Atal hau egiteko, metodo mistotik planteatutako inkesta bat erabili da, esku-hartzeen errealitatea ikustarazteko, betiere sororitatearen eraginkortasuna ardatz izanik. Azkenik, lortutako emaitzak aztertuko dira eta marko teorikoarekin alderatuz, azken ondorio batzuk planteatuko dira. Izan ere, ikerketa honen helburua, lortutako emaitzak paperean geratu ordez ibilbide bat egitea eta aurrerago praktikan erabili ahal izatea da.

3. Lanaren garapena


3.1. Ikerketaren Helburuak

Lan honen helburu nagusia, sororitatea, prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko tresna gisa erabilgarria izango litzatekeen aztertzea da. Horrez gain, bigarren mailako helburu batzuk ere zehaztu dira:

- Euskadin prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin lan egiten duten hirugarren sektore sozialeko erakundeak, metodologiak eta profesionalak ezagutzea.
- Gizarte-zerbitzuetan lagundutako emakumeen errealitate eta beharrak aztertzea.
- Gizarte-zerbitzuetan lagundutako prostituzio kontextuetatik datozen emakumeen harreman-sareak aztertzea, sororitatearen eragina neurtzeko.
- Esku-hartzeetan ikuspegi kritikoa aplikatzen den aztertzea marko feminista batetik.
- Emakumeen arteko laguntza-sareen garrantzia azpimarratuz etorkizunerako esku-hartzeetarako proposamen edo interesak biltzea.

3.2. Azterlana diseinatzea

Azterlanaren diseinuari dagokionez, esan genezake, dedukzio-motakoa dela, aurretik formulatutako esparru teorikoan oinarritzen delako eta a priori ikertu beharreko kontzeptu nagusien adierazleak zehaztu direlako: prostituzio-kontextuetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko baliabideak, gizarte-baliabideetan dauden emakumeen sareak eta sororitatea, besteak beste. Azterlana aurrera eramateko honako urratsak jarraitu dira (Andreu, 2000):



Aipatzekoa da aurretik aipatu bezala, azterlaren diseinuan metodologia mistoa erabili dela fenomenoaren ikuspegi zabalagoa edukitzeko. Izan ere, zehaztutako aldagaiei buruzko zenbakizko datuak bildu eta aztertzeaz gain, hauek ebaluatu eta aplikatzea ahalbideratu du emaitzak zenbaki eta ehunekotan bakarrik gera ez daitezen (Sarduy, 2007).

3.3. Egoera hautatzea, taldeak eta ezaugarriak

Laginaren hautaketari dagokionez, konbenientziazko laginketa erabili da, erakunde espezifikoko batzuei bidali baitzaie parte-hartzerako inkesta, profesionalen borondatezkotasuna, erantzuteko erraztasuna eta prestasunaren arabera erantzuteko. Inkesta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko hainbat elkarteri bidali zitzairen, langileen artean zabal zezaten. Erantzuteko baldintza bakarra azken urteetan prostituzio-testuingurutik zetozen emakumeekin lan egin izana zen. Azkenik, formularioan 13 profesionalak parte-hartu dute honako ezaugarri hauekin

Parte-hartzaileen artean figura profesional ezberdinak agertu dira, zehazki 5 gizarte hezitzaile, 5 gizarte langile, 2 psikologo eta gizarte integratzaile 1. Esperientziari dagokionez, 7 profesionalak (%53,8) prostituzioaren ingurutik datozen emakumeekin 10 urte baino gehiago daramate lanean eta gainontzekoek 1 eta 10 urte bitartean. Formakuntzaren harira, 11 profesionalak (%84,6) prostituzioaren kontextuarekin lan egiteko prestakuntza espezifikoa jaso dute, nagusiki genero-indarkeria eta pertsonen salerosketaren esparruetan. Profesionalekin bukatzeko, baliabide edo proiektuan daukan funtzio espezifikoi erreparatu zaie eta arreta integrala, harrera eta lehenengo eskaria gehien errepikatu direnak izan dira.

3.4. Datuak biltzeko tresnak deskribatzea

Informazioa biltzeari dagokionez, erabilitako tresna galdera itxi kuantitatiboen eta ireki kualitatiboen bidez sortutako formulario bat izan da (I. Eranskina) aurreko esparru teorikoa erreferentziazat hartuta egin dena. Formulariotik lortutako datuen analisisa ezinbestekoa da, errealitatetik jasotako ezagutzen inferentzia ahalbidetuko dutelako (Delgado, et. al; 2018).

Formularioak profesional-talde bati egin zaizkio, eta erabiltzaileei buruz ere galdetu zaie, prozesuan inplikaturako alderdien ikuspegia osatzeko, kolektibo hori zuzenean aztertzea oso konplexua delako. Erantzun horietatik, azterlana eragin duen ikerketa-galderari erantzuteko informazio egokia aterako da. Formularioa egiteko tresna Google Forms programa izan da, eta lagina kontuan hartuta gaztelaniaz egin da, euskaraz eskatzeko aukera egon delarik ere. Informazioa sistematikoki prozesatzeko metodoa denez, prozedura zorrotz bati jarraitu zaio, batetik, informazioa osatzen duten faseak koherenteak izateko eta azterlanaren asmo teorikoaren eta pragmatikoaren artean lotura egoteko (Delgado, et. al; 2018).

Formularioa 7 gai nagusitan banatuta dago, bakoitza galdera ireki eta itxiz osatua. Lehenik, parte-hartzaileari buruzko informazioa lortzeko profesionala eta baliabidearen inguruko galderak aipatzen dira. Jarraian, 2022an lagundutako emakumei buruz galdetu da, errealitatera ahalik eta zehatzen hurbiltzeko, zuzenean galdetzearen konplexutasuna jakinda. Ondoren, esku-hartzeko mekanismoak aztertzeari eta ebaluatzeari buruzko itemak planteatzen dira, eta, ondoren, marko teorikoan oinarrituta, feminismoa, ahalduntzea, autoestimua eta sareak aipatzen dira, gai horiek nola lantzen diren ikertzeko. Azkenik, ikerketaren gai nagusia aipatzen da: sororitatea esku-hartzeko estrategia gisa. Ikerketa amaitzeko, iradokizunak eta proposamenak egiteko gune bat planteatzen da, ondorioak ateratzeko lagungarria dena, eta kontaktatzeko gune bat ere gehitzen da, zalantzak edo iradokizunak erantzuteko.

3.5. Prozedura

Formularioaren inplementazioa aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izan da unibertsitateko tutorearekin zein Euskadiko hirugarren sektore sozialeko profesionalekin kontaktuan egotea. Hau horrela izanda, helburuak zehaztu, marko teorikoa osatu eta tutoren onespina izan ostean, hartzaileen profila zein izango zen zehaztu zen. Hasiera batean planteatutako ideia zuzenean prostituzio testuinguruetan ibilitako emakumeekin kontaktatzea bazen ere, emakume hauen parte-hartzea oso baxua eta konplexua izan zen. Hau horrela izanda, Euskadin prostituzio-kontextuetatik datozen emakumeak laguntzen dituzten entitateetako profesionalen esperientziak, ideiak eta proposamenak jasoko zirela zehaztu zen.

Hori jaso ahal izateko, aurretik zehaztutako helburuak ardatz izanda, marko-teorikoan agertutako ideiak plazaratzen zituen galdetegi bat sortu zen. Tutorearen aldetik galdetegiaren onarpena jasota, galdera itxi eta irekien bidezko inkesta moduan berridatzi zen Google Forms plataforma erabiliz. Inkesta hau jada marko-teorikoaren sorkuntzaren prozesuan topatutako entitate ezberdinei bidali zitzairen posta-elektronikoaren bidez haien profesionalen artean zabaltzeko eskaera eginez eta hiru asteetako epea eman zitzairen inkesta betetzeko.


Behin beteta, datuak jaso eta hauek interpretatu ziren. Datu kuantitatiboak interpretatzeko, Excel soportea erabiliz grafikoak sortu dira datuak modu bisualagoan edukitzeko. Datu kualitatiboak aztertzeko, aldiz, kategorizazioaren sistema erabili da, galderaren arabera erantzunak englobatzeko. Interpretazio hauek, ikerketa-galdera erantzuteaz gain, amaierako ondorioak planteatzeko erabilgarriak izan dira.

3.6. Bildutako datuak aztertzea

3.6.1. Profesionalen aurkezpena

Lehen atal honetan, ikerketaren laginketa diren profesionalen profila aztertzea bilatzen da. Figura profesional ezberdinak parte hartu dute inkestan, zehazki 5 gizarte hezitzaile, 5 gizarte langile, 2 psikologo eta gizarte integratzaile 1. Esperientziari dagokionez, profesionalen %53,8a prostituzioaren ingurutik datozen emakumeekin 10 urte baino gehiago daramate lanean eta gainerako %46,2a (n=6) 1 eta 10 urte bitartean. Formakuntzaren harira, kolektibo honekiko prestakuntza espezifikorik jaso izan duten ere galdetu zaie eta gehiengoak baiezkoa eman du, batzuk esparru ezberdinetan prestakuntza izanez (1. Grafikoa).

1. Grafikoa: Prestakuntza espezifikoa



Grafiko honen ezker aldean, prestakuntza espezifikoa ezberdinak ageri dira eta eskuinaldean, inkesta erantzundako profesionalak bakoitza kolore batekin adierazita. Ikus daiteke gehiengoak genero-indarkerian eta pertsonen salerosketan prestakuntza dutela eta soilik bi pertsona formakuntza espezifikorik jaso ez dutela.

3.6.2. Errekurtsoaren aurkezpena


Atal hau, ikerketan parte-hartutako profesionalak lan egiten duten baliabidea ezagutzeko planteatuta dago. Lehenik eta behin, baliabidea hartzen duen lurraldearen inguruan galdetu zaie eta guztiak Euskadikoak izanik, gehiengo bat, zehazki %53,8a (n=7) Bizkaikoak zirela azalerazi da. Gipuzkoa eta Arabako baliabideak %23,1a (n=3) izan dira bakoitza.

Baliabidearen helburu nagusiar dagokionez, kategorizazio-sistemaren bidez erantzunak analizatu dira. “Arreta integrala”, hau da, bizitzako arlo ezberdinetan haien ongizatea lortzeko beharrak asetzea baliabideen %84,6aren (n=11) helburu nagusia da. Hala ere, beste kategoria batzuk agertu dira hala nola “biktimen identifikazioa” eta “salerosketaren prebentzioa”. Helburuen harira, baliabideak landutako eremuaren arabera sailkatzea lortu da. Baliabideen %30,8a (n=4) egoitza-baliabideak ziren, beste %30,8a (n=4) arreta, aholkularitza eta informazioa emateko baliabideak, %7,7a (n=1) landa-lanean espezializatutakoak eta gainontzekoak hiru esparru horietan jarduten dute.

3.6.3. 2022an lagundutako emakumeen deskribapena

Atal honen helburua, 2022.urtean lagundutako emakumeen profila eta beharrak ezagutzea da. Erantzun guztiak batuz, 2592 emakume lagundu egin dira inkesta honetan parte hartutako baliabideetan. Baliabide handienean 586 emakume lagundu ziren eta txikienean aldiz, 8. Adinari dagokionez, gehiengoa 21 eta 54 urte-tarteetan ibili dira. Emakumeen jatorrizko lurraldearen datuak erreparatuz, emakumeen %43,1a Latinoamerikakoak izan dira eta bigarren plano batean, Estatu Espainolean jaiotakoak daude (2. Grafikoa).


2. Grafikoa: Artatutako emakumeen gutxi gorabeherako ehunekoak jatorrizko lurraldearekiko



Atzeritartasun tasa kontuan hartuta, baliabideak dauden tokian daramaten denboraren inguruan galdetu da, eta urtebete baino gutxiago daramatenen multzoa proportzionalki handiena da %39a osatuz. Lan egiteko lekuei erreparatuz, tradizionalak diren pisuak, klubak eta kalea %84,6a (n=11) izan da, zita-etxeak eta sare sozialak bigarren planoan egonda.


Behin profila ezagututa, garrantzitsua da emakumeek planteatutako eskariak ezagutzea. eta horretarako, 5 problematikaen artean aukeratzeko eskatu zaie profesionali (3.grafikoa). Arazo-ekonomiko eta gizarte-arazoen nagusitasuna eman da, %30,8arekin bakoitza eta beste beharrak bigarren plano batean kokatuz, %7,7arekin. Profesionalen %15,4a aipatu dute eskari guztiak planteatzen direla, arreta-integralaren beharra azaleratuz.

3. Grafikoa: Erabiltzaileen artean gehien planteatzen den eskaria



Eskarien artean erronka handiena suposatzen duena emakumeen erregularizazioa eta laneratzea izan da %76,9arekin. Baliabideak eskaerak asetzeko dituen zailtasunetan, hiru kategoria nagusitu dira: Baliabide falta (%46,2), prostituzio kontextuen klandestinitatea (%30,7) eta babes instituzional eza (%23,1). Sororitatearekin hurbilpen bat egiteko, profesionalen %53,8a adierazi dute agian baliabideek bete ezin dituzten eskaerak beste emakume batzuek bete ahal izango zituztela. Baina laguntza-sareetan oinarritutako esku-hartzeak planteatzeko, garrantzitsua da erabiltzaileen sareak ezagutzea (4. Grafikoa).

4. Grafikoa: Erabiltzaileen sare sozialen batez besteko balorazioa
Oso ona




Batez-besteko balorazioa hala-holakoa izan da nahiz eta profesionalekin eta baliabideko kideekin hobetua izan. Komunitateko kideekiko eta lankide ohiekiko balorazioa aldiz, okerragoa da. Komunitatearekiko binkulu falta kontuan hartuta, erresistentzia-, aliantza- edo laguntza-estrategia alternatiboen inguruan galdetu da. Galdera honetan, erantzundakoen artean, %50ak adierazi dute zaila dela laguntza-sareak osatzea talde-kontzientzia faltagatik, kompetenziengaitik eta gizonen boterearengaitik. Aldiz, beste %50ak erresistentzia estrategia gisa esku-hartzeen jarraitutasuna eta laneko babes-sareak aipatu dituzte.

3.6.4. Esku-hartzerako mekanismoen ikerketa eta ebaluazioa

Atal honetan, emakumeekin erabiltzen diren esku-hartze mekanismoak aztertu dira, profesionalen haien esperientziaren inguruan galdetuz. Azpimarratzekoa da erantzunen abaniko irekia, esku-hartzeko mekanismo interdiziplinarren beharra azaleratuz.

Esku-hartze ereduak erreparatu kasuak kudeatzeko eredu nabarmentzen da %38,5arekin (n=5). Hala ere, beste ereduak ere ateratu dira hala nola eredu sistemikoa eta azkenaldian sustatu den Pertsona zentratutako eredu %15,4arekin (5.grafikoa).

5. Grafikoa: Zer esku-hartze eredu nagusitzen dira emakumeekin lan egitean?



Guztiek perspektiba interkulturala inplementatzen dela aipatu arren, hobetzeko neurriak ere proposatu dira hala nola sentsibilizazioa, prestakuntza eta kulturartekotasunerako jarduerak. Gainera, datuen arabera, baliabideen %76.9etan denbora gehiago ematen da banakako esku-hartzean, kolektiboan baino eta profesionalen %30,8ak (n=4) aipatu dute talde-jarduerak esku-hartzeen ehuneko txikia hartzen dutela. Aipatzekoa da ere partaidetza-indize handiena duten jardueren artean Gaztelania edo laneratzeko gaitasunak lantzen dituzten tailerrak dauden arren, jarduera ludikoak edota autozaintzarekin lotutakoak ere aipatu direla.

3.6.5. Feminismoa, ahalduntzea, autoestimua eta laguntza-sareak

Atal honetan feminismoarekin edo ahalduntzearekin lotutako hainbat kontzepturi buruzko hausnarketa egin nahi da, esku-hartze sozialetan genero-ikuspegi kritikoa ze modutan aplikatzen den aztertze eta emakumeek kontzeptu horiek nola bizitzen dituzten ulertze.

Profesionalen %100a erantzun dute gizarteak aurreiritzi eta estigma diskriminatzaileak dituela prostituzioaren inguruko emakumeekiko. Horrek suposatu du %83,3ak aipatzea baliabideetara jotzen duten emakumeen autoestimua oro har txikia dela. Autoestimu hau lantzeko, ahalduntzerako moduen inguruan ere galdetu da, kategorien bidez. Baliabideen %46,16an (n=6) arlo psikologikoan sakontzen dute, %23an (n=3) formakuntzarekin lantzen dute eta %30,76an (n=4) autoestimua lanketan zentratzen dira. Baina sororitatearekin lotura egiteko, nabarmentzekoa da profesional batek aipatutako “sareko lan komunitarioa”.

Aipatutako partaidetza sustatzeko ekintzen inguruan profesionalen %100ak esan dute baliabideetan emakumeak aktiboki proposamenak sartzeko lekua dagoela. Proposamen gehienak aisialdiarekin lotutako jarduerak dira baina %30,76ak (n=4) aipatu dituzte ere elkarbizitza hobetzeko, zereginak banatzeko eta bitartekariaren figura proposatzeko ekintzak, taldeko pertenezia sentimendua azaleratuz. Genero ikuspegiarekin jarraituz, profesionalen %100ak baliabidean ikuspegi kritiko, feministatik lan egiten dela baieztatu duten arren, ez dago oso argi ikuspegi hau erabiltzaileetan erreflejatzen den. Izan ere, baliabidera jotzen duten emakumeek feminismoa ulertu eta bizitzeko moduaren inguruko erantzunak orokorrean negatiboak izan dira.

“Emakume hauek ez dute feminismoa ulertzen”

“Ez dute horren kontzientziarik eta ez da haien lehentasuna”

3.6.6. Sororitatea esku-hartzeko estrategia gisa

Atal honetan, erabiltzaileen arteko sareak aztertu dira, harreman horiek gizarte-premiak asetzen lagun dezaketen zehazteko, eta, beraz, sororitatea esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko tresna izango litzatekeen zehazteko. Sororitatea emakumeen arteko saretzean oinarritutako mugimendua izanik, lehen galdera izan da ea baliabideak beharrezko garrantzia ematen dieten emakumeen arteko sare sozialei, %84,6ko baieztokoarekin (n=11).


Hala ere, galdetu zaienean erabiltzaileek sare sozial osasuntsuak mantentzeko zailtasunen inguruan, haien bizi-esperientziak oztopo gisa aipatzen dituzte %69,2ak (n=9), erreferente faltarekin justifikatuz, mesfidantza eta zaugarritasun eremuetan mugitu direlako. Horrez gain, beste faktore batzuk agertu dira hala nola %23an (n=3) ekonomia-ezegonkontasuna eta %7,7an (n=1) substantziak. Gainera, erabiltzaileen emakumeekin eta gizonekin harremanatzeko moduak %100ean desberdinak direla aipatu da. Gizonekin harremanatzerako orduan %30ak (n=4) mesfidantzatik, %47ak (n=6) hipersexualizaziotik, eta %23ak (n=3) infantilizazioatik egiten dutela erantzun dute, gizonaren irudia distortsionatua agertuz.

“Gizonekiko harremana pragmatikoagoa da beti, eta gizonak prostituzioaren kontsumitzaile eta putazale gisa identifikatzen diren heinean, harremana instrumentalizatu egiten da”.

Aldiz, emakumeekin harramanatzerako orduan bi erantzun mota ateratu dira. %53ak (n=7) lehiakortasun, inbidia eta mesfidantzaren terminoak aipatu dituzte eta aldiz, beste %47ak (n=6) enpatia eta laguntza-sareen terminoak aipatu dituzte.

“emakume hauen arteko harremana ambiguo da alde batetik, laguntza- loturak ezartzen dituzte, baina bestetik, konfiantza gutxi dagoelako haien artean”.


6. Grafikoa: Zertan lagun liezaieke gehien baliabideko eta komunitateko emakumeen arteko adiskidetasun- edo laguntza-sare batek?



Erakundeetan burutzen den sareko-lana ezagutzera begira, %84,6ak (n=11) erantzun du sareko lana egiten dela beste erakunde eta kolektiboekin. Gainera, baliabideko erabiltzaileen eta komunitateko emakumeen arteko laguntza-sare bat planteatzerako orduan honako onurak aipatu dituzte: Segurtasunean, Ekonomikoki edo bizitoki-mailan, sozializatze, prestakuntza-mailan eta osasunean. (6. Grafikoa).

Komunitateko harremanak alde batera utzita, baliabideen barruan laguntzen diren emakumeen arteko harremanak aztertuta, gehiengo batek (%61,5a) adierazi dute ez dagoela elkarri laguntzeko dinamikarik. Interesgarria izan da gatazken inguruan sakontzea ikusteko dinamika horiek oztopatu ahal dituzten konfliktuen arrazoi nagusiak (7. Grafikoa).

7. Grafikoa: Gatazkarik izanez gero, zeintzuk izaten dira arrazoi ohikoak?



%46,2a (n=6) bizikidetzarekin lotutako arazoak aipatu dituzte eta hurrengo arrazoirik aipatuena %30,8arekin (n=4) arrazoi kulturalak izan dira. Beste arrazoi batzuk (inbidiak eta lehia) eta arrazoi ekonomikoak bigarren plano batean kokatzen dira.

Atal honekin bukatzeko, zuzenean sororitatea kontuan hartu beharreko tresna izan daitekeen galdetu zaie kolektibo horrekiko esku-hartzeetan erantzunen %100a baiezkoa izanik.

3.6.7. Etorkizuneko esku-hartzeetarako iradokizunak, soritatearen ikuspegitik

Azken atal honetan, emakumeen arteko laguntza-sareen garrantzian oinarritutako etorkizuneko esku-hartzeetarako proposamen gunea sortzea da helburua, formulariotik lortutako hausnarketetatik abiatuz. Ikusita emakumeen eskaerak asetzeko haiek proposatutako jarduerak lantzen diren esku-hartzeak positiboak izango liratekeela erantzun dutela parte-hartzaileen %100ak (n=13), azpimarratzekoak dira baliabideetako emakumeen arteko laguntza-harremanak sustatzeko proposamenak.

“Emakumeen arteko sororitatea ardatz nagusi izango duten espazio gehiago sortzea”

“Bereizketarik egin gabe emakume guztiak sar daitezkeen espazioak”

“Elkarri laguntzeko taldeen parte-hartze aktiboa motibatzea”

Amaitzeko, lan honen irakurleentzako eskaerak planteatu dira:

“Emakumeen errealitateari eta egoerari buruzko informazio eta ezagutza handiagoa”

“Genero-ikuspegia eta prostituzioaren kontsumoari buruzko antzeko lanen irakurketa, putazaleen foroak, ikuspegia hobetzeko eta esku-hartzearen fokua ez galtzeko”

“Sororitatea estrategia gisa duten baliabide eta jarduera inklusibo gehiago”

3.7. Eztabaida: Bildutako datuak interpretatzea

Egindako inkesten bidez bildutako datuak aztertu ondoren, ikusi da inkestetako parte-hartzaileek baieztatu egin dituztela marko teorikoaren atalean jasotako teoria asko. Era berean, jasotako erantzunen bidez, sororitatea prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeekin esku hartzeko tresna gisa aplikatzeko ideian sakondu ahal izan da, lan honen helburu nagusia dena. Baina emaitzak eztabaidatu eta interpretatzeko atal honetan, garrantzitsua da lan honen hasieran planteatutako gainerako helburu espezifikoak aztertzea.

Lehenik eta behin, Euskadin prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin lan egiten baliabideak ezagutzeko helburuari erreparatuko diogu. Suarezek (2015) aipatzen duen moduan, prostituzioa, gaur egun, globalizazioaren testuinguruan aurkezten den fenomeno konplexua da, indibidualismoa eta bazterkeria sustatzen duten arau-sozialen menpe dagoena. Arau-sozial hauek ere, esku-hartzerako mekanismoak markatzen dituzte, izan ere, inkesten arabera esku-hartzeen %76,9an denbora gehiago ematen da banakako esku-hartzean, kolektiboan baino, profesional batzuen talde-jardueren sustatzea aldarrikatuz.

Aipatutako prostituzioaren konplexutasunari aurre egiteko, esku-hartzeak hainbat mailatan lantzea garrantzitsua da Serranok eta Delgadok (2018) aipatu moduan. Ezinbestekoa da beraz, formularioaren erantzunetan behin eta berriro ateratako arreta-integralaren kontzeptuak bai profesionalen profil eta prestakuntzean, baita baliabideen funtzionamenduan ere. Marko teorikoan, *sarbidearen eta errotzearen logikaren* teoria agertu da ere, prostituzio kontextuetatik datozen emakumeen egoera konplexuari erantzun holistikoago bat emateko. Formularioan, *sarbidearen* kontzeptuan nagusiki laneratzeko aukerak sustatzeko beharrari eman zaio garrantzia eta aldiz errotzearen atalean, emakumeek jakin gabe erabiltzen dituzten babes-sareak eta kulturartekotasunarekiko sentsibilizazioaren beharra agertu dira.

Jarrantzeko, lagundutako emakumeen errealitate eta beharrak aztertzeari dagokionez, aipatzekoa da atzerriartasuna. Pozok (2021) dioenaren arabera, migratutako emakumeen zaurgarritasuna eta prostituzioa bezalako bazterkeria-kontextuen arteko lotura ukazina da. Datuei erreparatuz, 2022.urtean Euskadin lagundutako emakumeen atzerriartasun-tasa %80,8koa izan zen, gehiengo bat garapen prozesuan dauden herrialdeetakoak izanik. Gainera, eskaririk handiena erregularizazioa eta laneratzeko aukerak lortzea dira, Munduko Medikuek GKEak (2021) salatzen duen moduan, *Atzerriartasun legearen* oztupoengaitik.

Atal honetan landu beharreko hurrengo gaia, gizarte-zerbitzuetan lagundutako prostituzio kontextuetatik datozen emakumeen harreman-sareak aztertzea izango litzateke, sororitatearen eragina neurtzeko. Inkestetako erantzunei erreparaturik, emakumeen balorazioa haien sare-sozialekiko hala-holakoa izan da, talde-kontzientzia falta eta harreman osasuntsuen erreferente faltaren arrazoiak aipaturik. Marko teorikoari erreparaturik, prostituzioan mugitzen diren emakumeak sare-sozialak sortzeko oztupoak aipatzen dira hala nola klandestinitatea eta ikusezintasuna (Koken, 2012). Hala ere, sororitatearen aldeko argudio gisa, inkestetan agertu da emakumeek euren arteko babes-estrategiez hitz egiten dutela, eta beraz, Alvarez eta Monteroren (2021) teoriari jarraikiz, elkartzen eta elkarri laguntzen saiatzen dira.

Jada sororitatearen kontzeptua agertu dela, garrantzitsua da aztertzea nola aplikatzen den ikuspegi kritikoa esku-hartzeetan, berriz ere genero ikuspegi feministari erreparaturik. Izan ere, ezin dugu ukatu, jada marko teorikoan agertu den kontzeptua: Prostituzioa generoak oso markatutako praktika dela. Baina generoaren eragin hau prostituzioan lanean dauden emakume eta gizon kopuruetatik haratago doa. Formularioko erantzunei erreparaturik, behin eta berriro agertu dira genero-rollekin lotutako dinamikak emakume erabiltzaileen artean. Honen adibide dira beste emakumeekin harremanatzerako orduan sortzen diren inbidiak zein eta lehia eta gizonarekiko daukaten irudi distortsionatua (hipersexualizaziotik, mesfidantzatik eta indantilizaziotik) besteak beste. Hauek identifikatzea ezinbestekoa da Garcíak (2022) esandakoari jarraikiz, genero ikuspegia landuta ez izateak paternalismoan, kolektiboan biktimizazioan, estigmaren sustatzean eta rol-femeninoen erreprodukzioa ekar dezake.

Autoestimua gaia ere nabarmentzekoa da, marko teorikoan Serabiaren (1998) hitzetan aipatu den moduan, prostituzioan sexu femeninoaren kriminalizazioa ematen baita, emakumeen estigmatizazioaren bidez. Formularioari erreparaturik, profesionalen %100a erantzun dute estigma diskriminatzaileak daudela prostituzioaren inguruko emakumeekiko, lagundutako emakumeen autoestimua oro har txikia izatea eraginez. Ahalduntzea lantzeko, arlo psikologikoan, formakuntzan bidez edo autoestimua hobetzean lan egiten duten arren, genero-ikuspegitik lantzen diren esku-hartzeko alternatibak beharrezkoak dira. Izan ere, arreta-dispositiboetan ikuspegi androzentristatik lan egiten da eta emakumeek beldurra, estigma, ezjakintasuna eta genero-rolari lotutako arrazoiaren ondorioz, ikusezintasunean mantentzen direlarik esku-hartzea zailduz (Emakunde 2016). Marko teorikoan aipatu den moduan, genero-ikuspegitik lan egitea, emakumeen autoestimua hobetzea, parte-hartzea sustatzea eta inklusiboak diren helburu errealistak planteatzea bilatzea da.

Diskusioarekin bukatzeko, emakumeen arteko laguntza-sareen garrantzia azpimarratu eta etorkizunerako iradokizunak biltzearen helburuari erreparatuko diogu. Emakumeen arteko laguntza-sarearen kontzeptuarekin sororitateari erreferentzia egiten da, aurretik aipatutako genero-ikuspegitik jaiotako planteamendua delako. Erantzunetan bildutako promosamenei erreparatuta, emakumeen eskaerak asetzeko haiek proposatutako jarduerak eta elkar-laguntzeko espazioak azpimarratzekoak dira. Lagardek (2013) defenditu zuen moduan, Sororitatea, emakumeen parte-hartzea sustatzeko, konfidantzazko espazio hori eskeintzen du eta beraz, prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko tresna gisa baliogarria dela esan daiteke ikerketa-hipotesia baieztatuz, lanari amaiera emateko.

4. Ondorioak

Ondorioak ikerketa-proiektuaren barnean amaiera suposatzen dute eta aurreko lan teoriko eta enpiriko guztiaren sintesia izateaz gain, ikerketa-galderari erantzuten diote. Atal honetan, alde batetik, emandako informazio teorikotik ateratako ondorio orokor batzuk bereiziko dira, eta, bestetik, gure azterlanaren testuingurua izan den Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-erakundeen errealitateari aplikatu dakizkiokeen zehaztasun handiagoko ondorioak.

Ondorio orokorrak:

- Prostituzio-inguruneetan dauden emakumeek ez dituzte laguntzarako sarerik eta harreman osasungarririk, hein batean mugitzen diren kontextuen mugengatik eta emakume horien profilagatik, eta horrek arrisku-faktorea suposatu dezake zaugarritasunean egotera begira.
- Emakume migratzaileen tasa handia, erregularizaziorako oztopoak, estigma eta genero-arau inplizituak, zaugarritasun egoeran dauden emakumeak ezkutuko bazterkeria-moduetara eramaten ditu. Horregatik, ondoriozta daiteke gaur egun esku-hartze sozialeko baliabideek mugak dituztela bazterkeria-inguruneetatik datozen emakumeen irisgarritasunerako, neurri batean, genero-ikuspegirik ez dutelako.
- Emakumeen arteko elkartasun-, konfiantza- eta elkarrekotasun-harreman antiautoritarioetan oinarritutako lidergo eta kultura feministaren erudia da sororitatea. Emakumeei parte-hartzerako espazio seguru bat eskaintzen duen tresna da ere eta haiek kontziente izan gabe praktikatzen dute, babeserako estrategia gisa.

Ondorio zehatzak:

- Sororitatean oinarritutako esku-hartzeak epe ertain eta luzera planteatzea komeni da. Izan ere, lagundutako emakumeek bizi duten kalteberatasun-egoerak esku-hartze integrala eskatzen du, lehentasuna izanez beren eskubideak bermatzea eta oinarrizko premiak hasetzea, hala nola; diru-sarrerak, prestakuntza eta erregularizazioa.
- Kasu bakoitzari zuzendutako arreta pertsonalizatua da Euskadiko gizarte-baliabideen esku-hartzeen ardatz egituratzailea prostituzio-inguruneetatik datozen emakumeekin, hein handian lagundutako emakumeen zirkunstantzien heterogeneotasunagatik. Ondorioz, esku-hartze kolektiboa, taldekoa zein komunitarioa, ez dago hain presente, profesionalek honen presentzia aldarrikatzen duten arren.
- Euskadiko gizarte-baliabideek eskainitako esku-hartzeen ezaugarria arreta-integrala da, nahiz eta oraindik zailtasunak dituzten emakumeen ongizate emozionaleko eta sozialeko helburuak betetzeko. Kulturarteko ikuspegia ere sustatzen da esku-hartzeen ezaugarri gisa, ezinbestekoa dena atzerriarttasun tasa altua kontuan hartuta.
- Oro har, esan daiteke ez dela sare-laguntza kontzienteko dinamikarik aurkezten baliabideetan lagundutako emakumeen artean, nahiz eta modu inkontzientean elkarrekiko laguntza eta taldeko kide izatearen sentimendua ematen diren. Aurrekoaren ildotik, emakumeen balorazioa nahiko negatiboa da haien harreman-sareei dagokienez, neurri handian prostituzioan bizitako egoera pertsonal eta psikosozial konplexuak eraginda, lehiakortasuna eta inbidiak sustatzen baitira.
- Ondoriozta daiteke emakumeen arteko harremanaren ezaugarri nagusia ez dela, oro har, sororitate-dinamika kontzienteak egotea. Gainera, sare sozialen ahuleziaz gain, terminoa definitzen duten alderdiak ez dira identifikatzen, hala nola generoaren inguruko gogoeta politikoa egitea ezta ikuspegi feminista bat ere. Hala ere, sororitatearen-elementuak presente daude talde profesionalen lanari dagokienez; izan ere, emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzen da baliabidearen barruko proposamenen bidez, eta hori egiaztatu daiteke baliabideen barruan emakumeen artean sortutako harremanak modu positiboagoan baloratzen direlako. Horregatik, profesionalek lotura horren sustapena emakume horien ongizaterako eta sozializatorako tresna positibo gisa ikusten dute.

Azken batean, lan enpirikotik ateratako emaitzak aztertu ondoren, azterketaren hasierako ikerketaren hipotesiari baiezko erantzuna eman zaio eta beraz sororitatea prostituzio kontextuetatik datozen emakumeekin esku-hartzeko tresna izan daiteke.

Hala ere, hipotesiaren baieztatze honek ñabardura batzuk behar ditu, atal honetan justifikatu den bezala, baliabideen lehentasuna emakumeen oinarrizko beharrak asetzea delako eta lagundutako emakumeen artean sororitatearen inguruan dauden kontzeptuen lanketa eta kontzientziazioa beharrezkoa delako edozein esku-hartze planteatu aurretik.

5. Etika profesionala eta datuen babes

Lan osoan zehar etika profesionalak zein datuen babeserako legeak eskatzen dituzten prozedurak jarraitu dira. Aspektu etikoak kontuan hartu dira, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean adierazitako eskubideak bermatuz eta parte-hartzaileen interesak, autonomia eta askatasuna errespetatuz. Galdetegiak borondatezkoak, anonimoak eta konfidentzialak izan dira eta horrela jakinarazi zaie parte-hartzaileei, lortutako datuak soilik azterlan hau gauzatzeko erabiliko zirela azalduz. Laburbilduz, jasotako informazio guztia modu arduratsuan erabili da, datuen babeserako legearen oinarriak jarraitu direlarik.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Álvarez, J. y Montero, O. (2021). Las mujeres que sufren prostitución practican la sororidad para sobrevivir. Diario de Noticias. <https://www.noticias.com/>
- Andréu, J (2000). Las técnicas de análisis de contenido: una revisión actualizada. *Fundación Centro Estudios Andaluces, Universidad de Granada*, v.10, n.2, p. 1-34.
- Bañuelos, A. (2023). *Jornada de presentación del informe «Perspectiva de género e interseccionalidad en la intervención social»*,. Bilbao
- Berga, A. (2005). La perspectiva de género: una nueva mirada a la realidad social. *Educación Social: Revista de Intervención Socioeducativa*, N°31, 15-24.
- Calderón, A. (2017). *Sororidad, una estrategia en la intervención social para hacer frente a la violencia machista*. Universidad autónoma de Barcelona.
- Cáritas (2016). *La prostitución desde la experiencia y la mirada de Cáritas*. Reflexiones y marcos de acción. ISBN: 978-84-8440-610-5. Madrid.
- Carrasco, S. (2019). Estudio sobre la realidad de las mujeres en situación de exclusión residencial. Bizitegi.
- Delgado, K.; Gadea, S.; Gadea, W.F.; Vera, S. (2018). Rompiendo barreras en la investigación. UTMACH. ISBN: 978-9942-24-087-3
- Emakunde (2016). Violencia contra las mujeres en la CAPV. Servicio de Investigación Social de Fundación EDE. <https://www.emakunde.eus/>
- García, K. (2022). Trabajo sexual con derechos: Una alternativa a la despenalización. [Jornada Askabide: *Hablan Ellas*]. Bilbao.
- Juliano, D. (2002). La prostitución: el espejo oscuro. Barcelona: Icaria.
- Koken, J.A. (2012). *Independent Female Escort's Strategies for Coping with Sex Work Related Stigma*. *Sexuality & Culture*. 16:209–229.
- Lagarde, M. (2013). Pacto entre mujeres: Sororidad. Aportes, edición 25. Buenos aires.
- Martínez, S. (2017). Procesos de empoderamiento y liderazgo de las mujeres a través de la sororidad y la creatividad. *Dossiers feministes*, n.º22, pp. 49-72, <https://raco.cat/>.
- Médicos del Mundo (2021). Prostitución y trata de seres humanos en España con fines de explotación sexual. <https://www.medicosdelmundo/>
- Meneses, C. (2010). La trata de mujeres y niñas con fines de explotación sexual en Euskadi: necesidades y propuestas. Informe final de resultados. Universidad de Deusto y Universidad de Comillas. https://trata_mujeres_ninas_exp_sexual_euskadi

- Morales, L. (2016). Empoderamiento y Sororidad de las Mujeres. Cuadernos Fronterizos N°39.
- Morcillo, S. (2016). Derivas sociológicas y de las ciencias sociales sobre la prostitución. Espacio Abierto, Cuaderno Venezolano de Sociología, 25(4): 31-46. <https://dialnet.unirioja.es>
- Ormaetxea, I. (2017). “Perfiles, apoyos criterios” [presentación], en IV Jornadas Gizartegune ‘Transformando el modelo de intervención para la inclusión social’, Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia <http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/>
- Orte, Ballester & Pozo (2019). Introducción. En *Vulnerabilidad y resistencia: experiencias investigadoras en comercio sexual y prostitución*. Universitat de les Illes Balears.
- Pérez, A.M. (2019). Estudio sobre la SORORIDAD. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación, Universidad de La Laguna.
- Pons, I.M. (2004). Más allá de los moralismos: prostitución y ciencias sociales. En R. Osborne (Edit.), *Trabajador@s del sexo. Derechos, migraciones y tráfico en el siglo XXI* (pp. 13-20). Barcelona..
- Pozo, F. (2021). Investigar sobre prostitución: complejidad del objeto, marcos analíticos y controversias. *Revista Española De Sociología*, 31(1), 93.
- RAE (2018) *Sororidad*. Diccionario de la lengua española, 23.ª ed., [versión 23.2 en línea].
- Royo, R., Silvestre, M., González, L., Linares, E. y Suárez, M. (2017). Mujeres migrantes tejiendo democracia y sororidad desde el asociacionismo. Una aproximación cualitativa e interseccional. *Investigaciones Feministas*, 8(1), 223-243.
- Sarabia (1998). Prostitución. En Giner, S.; Lamo de Espinosa E. y Torres C. (Edits.), *Diccionario de Sociología* (p. 613). Madrid: Alianza.
- Sarduy, Y. (2007). El análisis de información y las investigaciones cuantitativa y cualitativa. *Revista Cubana de Salud Pública*
- Serrano, E. M. y Delgado, A. (2018). Intervención social con mujeres en situación de prostitución: revisión sistemática. *Revista Española de Investigación Criminológica*, 16, 1-25.
- Sepúlveda, L. y Rosales, N. (2011). Cambios, retos y oportunidades: una mirada desde la sensibilidad, subjetividad, talento de mujeres entre los roles y la sororidad. Universidad de San Buenaventura, facultad de educación de Santiago de Cali.
- Suárez, A. (2015). Redes de apoyo informal y sororidad en la intervención social de fundación Amaranta con mujeres en contexto de prostitución. Universidad de Oviedo.
- Unamuno, M. (1921). Sororidad, Ángeles y Abejas. *Caras y Caretas*, nº1171. p.55. Buenos Aires

- Varela, N. (2018). Feminismo para principiantes. Barcelona, Penguin Random House Grupo Editorial, S.A.U.
- Villa, E. (2010). Estudio antropológico en torno a la prostitución. Cuicuilco. Revista de Ciencias Antropológicas. 17(49), 157-179. <http://www.scielo.org.mx/>